

## ***Ibercaja Taldearen Pribatutasun Jarduerako Printzipioak***

Pribatutasun Jarduerako Printzipioen dokumentu honen bidez, Ibercaja Taldea osatzen duten sozietateetan, zeinetara Datuak Babesteko Ordezkaria Korporatiboa bere jarduera-eremua zabaltzen duen (aurrerantzean, «Taldea» edo «Ibercaja») zure datu pertsonalak nola tratatzen ditugun azaldu nahi dizugu, zeinen xehetasunak [hemen](http://www.ibercaja.es/proteccion-datos/dpo-corporativo-eus/) kontsulta ditzakezu (www.ibercaja.es/proteccion-datos/dpo-corporativo-eus/). Dokumentua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.

Ibercajak oinarrizko eskubideak errespetatzeko duen konpromiso sendoak eta gure erantzukizun sozialak gure jardueraren oinarrizko printzipio gisa ezartzera eramaten gaitu zuri jakinaraztea zure datu pertsonalak, edozein kasutan ere (legezko betebeharrak eragozten ez badigu behintzat), noiz eta nola tratatuko ditugun, zer helbururekin eta lege-justifikazioekin erabili nahi ditugun, beste norbaitek eskuratu ahal izango dituen, eta zer eskubide dituzun eta nola balia ditzakezun.

Aurrekoaren arabera, edozein datu pertsonal eskatu behar dizugunean, hori bildu eta tratatu aurretik emango dizugu kontu horien guztien berri xehetasun osoz. Era berean, hirugarren batek zure datu pertsonalak ematen dizkigunean, besteak beste, zure datuak tratatzen ari garela eta nor eman dizkigun eta zer helbururekin jakinaraziko dizugu. Horrekin bermatu nahi dugu une oro jakingo duzula zein baldintzatan tratatuko ditugun.

### ***1. Nor da, legez, zure datuen tratamenduaren Arduraduna?***

Lehenik eta behin, zure datu pertsonalak eskatu eta jasotzera goazenean, edo hirugarren batengandik jasotzen ditugunean, datuen tratamenduaren legezko arduraduna nor den jakinaraziko dizugu.

Oro har, «Ibercaja Banco S.A.» izango da (egoitza soziala: Plaza de Basilio Paraíso 2, 50008 Zaragoza).

Hala ere, Ibercaja talde handiago bateko kide denez, , sozietate horietako edozeinek zure datuen tratamenduaren arduradun gisa jardun ahal izango du haiekin harremanetan jartzen zarenean. Nolanahi ere, eta adierazi dugun bezala, kasu bakoitzean jakinaraziko dizugu zein sozietatek duen legez erantzukizuna.

## **2. Nor da Ibercajaren Datuak Babesteko Ordezkaria?**

Ibercajan pertsona bat izendatu dugu zure datu pertsonalen babes zaintzeko, zure pribatasuna eta intimitatea babestuz, eta datu pertsonalen babesaren arloko legeko eskakizunak betetzen ditugula bermatuz, bai estatu mailan, bai Europa mailan.

Datuak Babesteko Ordezkaritza Korporatiboa da, eta bera arduratuko da datuak babesteari buruz behar duzun informazio guztia emateaz. Behar izanez gero, harekin harremanetan jarri ahal izango zara [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es) helbide elektronikoaren bidez.

Taldea osatzen duten sozietateentzat berariazko helbide bat zehaztu badugu, behar bezala jakinaraziko dizugu honako atal honetan azaltzen dugunaren arabera: [«12. Nola jakin dezakezu Taldeko sozietate bakoitzarentzako datuak babesteari buruzko informazio guztia?»](#). Nolanahi ere, [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es) helbide elektronikora bidaltzen dizkiguzun eskaera eta komunikazio guztiei erantzun diegu.

## **3. Zertarako bildu eta trata ditzakegu zure datu pertsonalak? Eta zein lege-oinarriekin?**

Ibercajan, Taldea osatzen duen sozietate bakoitzak garatzen dituen jardueren aniztasuna kontuan hartuta, hainbat eta askotariko helburutarako tratatu eta bildu ditzakegu zure datu pertsonalak. Jarraian, Taldeko hainbat sozietatetan garatzen ditugun tratamendu orokor batzuk eta horien helburua identifikatuko ditugu, adibide gisa.

Lehenik eta behin, bezeroa bazara, zure datuak tratatu behar ditugu gurekin kontratatuta dituzun produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko. Bezeroa ez bazara, gure web-orrira sartzen bazara edo gure telefono bidezko arreta-zerbitzuarekin harremanetan jartzen bazara, egin ditzakezun kontsultei edo erreklamazioei erantzuteko beharko ditugu. Era berean, zure datuak tratatuko ditugu zure CVA hautaketa-prozesu baten barruan helarazten badiguzu, zure hautagaitza ebaluatu ahal izateko.

Segurtasun-arrazoiengatik, zenbait instalaziotan bideozaintza-sistemak ditugu, eta horietan sartzen diren pertsonen irudiak jasotzen dituzte. Horregatik, Ibercaja Banco, S.A.ren bulegoetako batera joaten bazara, zure irudia jaso dezakegu.

Bestalde, finantza-taldea izateak esan nahi du legeko betebeharrak batzuk bete behar ditugula, eta horiei buruz datu pertsonalak tratatu behar ditugula. Horri dagokionez,

Zerga Agentziarekin, Espainiako Bankuarekin, Kapital Zuriketari eta Arau-hauste Monetarioei Aurrea Hartzeko Batzordearen Zerbitzu Exekutiboarekin eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekin ditugun betebeharrak aipatu behar dira, beste batzuen artean. Era berean, finantza-taldea garen aldetik, administrazio-izaerako barne-lan batzuk egin behar ditugu.

Kasu horietan guztietan, eta baita beste edozein kasutan ere, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen oinarri legitimatzaileetako baten arabera tratatuko ditugu zure datuak:

- Kasu batzuetan, **beharrezkoa delako kontratu aurreko neurriak hartzeko edo zure kontratua betetzeko** eta eskatu dizkiguzun zerbitzuak emateko. Adibidez, ordainagiri bat helbideratzen duzunean edo transferentzia bat egiteko eskatzen diguzunean.
- Beste kasu batzuetan, **legez derrigorrezkoa** delako. Horri dagokionez, Zerga Agentziari edo Espainiako Bankuari informazio jakin bat bidaltzeko dugun betebeharra aipatu behar da.
- Halaber, batzuetan zure datuen tratamendua **interes publikoko arrazoen** ondorio da. Hala gertatzen da bideozaintzako kamerekin, delituzko jarduerak prebenitu nahi baititugu.
- Bestalde, egoera batzuetan ulertzen da **zuk eta guk interes legitimoa dugula** zure datuak tratatzeko. Adibide gisa, kontsulta bat egiten diguzunean, zure harremanetarako datuak erabili behar ditugu erantzun ahal izateko; edo gure *call center*ekin harremanetan jarri zarenean eman dizugun zerbitzuaren kalitatea barrutik ebaluatu nahi dugunean.
- Salbuespenezko inguruabar batzuetan interesdunaren datuen tratamendua zure **bizi-interesean** oinarritu daiteke, zure baimena emateko gaitasunik ez duzun egoera baten aurrean. Hori gerta liteke, adibidez, gure bulegoetan osasun-premia baduzu eta zure datuak osasun-arloko profesionalei jakinaraztea ezinbestekoa bada zure osasuna babesteko.
- Azkenik, tratamendua ere justifikatuta egon daiteke, **zure baimena** berariaz eman diguzulako. Egoera hori gertatzen da, adibidez, bezeroa izan ez arren sustapenei buruzko merkataritza-informazioa bidaltzea nahi duzunean.

Nolanahi ere, gogorarazi nahi dizugu beti adieraziko dizugula Taldeko zein sozietate den tratamenduaren arduraduna, eta zure datu pertsonalak zertarako eta zer lege-oinarriarekin tratatuko ditugun azalduko dizugu.

#### **4. Beste inor sartzen al da zure datu pertsonaletara?**

Informazioa eman diozun Taldea osatzen duen sozietate zehatzak soilik tratatuko du informazioa. Erakunde horren nortasuna jakinaraziko dizugu beti, eta haren legezko erantzukizuna da datuak biltzea, erabiltzea, kontserbatzea eta, legez beharrezkoa denean edo eskatzen diguzunean, ezabatzea.

Aurrekoa kontuan hartuta, oro har, ez ditugu zure datu pertsonalak hirugarrenekin partekatuko. Hala ere, batzuetan bai, hirugarrenei emango dizkiegu, baina, betiere, (i) legez nahitaezkoa bada (adibidez, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei edo Epaitegi eta Auzitegiei), (ii) berariaz baimendu badiguzu, (iii) eskatu diguzun zerbitzua emateko beharrezkoa bada, edo (iv) barneko administrazio-helburuekin egiten bada (Taldea osatzen duten sozietateen artean).

Bestalde, jakin behar duzu zerbitzuen hornitzaile diren hirugarren batzuekin lankidetzan aritzen garela, eta balitekeela horiek noizbehinka zure datu pertsonaletarako sarbidea izatea. Besteak beste, zerbitzu informatikoen, segurtasunaren edo *call center* zerbitzuen enpresez ari gara.

Kasu horietan, dagokien kontratua sinatuko dugu haiekin. Kontratu horretan, besteak beste, betebeharrak hauek ezarriko dizkiegu: segurtasun-neurri egokiak aplikatzea, soilik gure jarraibideen arabera erabiltzen dituzten datuak tratatzea, eta zerbitzuak amaitutakoan datuak ezabatzea edo itzultzea.

#### **5. Hirugarren horietakoren bat beste herrialde batean egon daiteke?**

Datuak Babesteko Europako legeriaren arabera, Europako Esparru Ekonomikotik kanpo dagoen beste enpresa bati berme jakin batzuk betetzen badira bakarrik eman dakizkioke datuak. Horrela, zure datuak beti behar bezala babestuta egotea bilatzen da, erabiliko dituen enpresaren kokapena edozein dela ere.

Berme horietatik ohikoena da helmugako lurraldeak edo herrialdeak, Europako Batzordearen iritziz, pribatutasunaren arloan babes-maila egokia bermatzea. Babes-maila hori bermatzen duten herrialdeen zerrenda bat dago, eta horren xehetasunak [Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren webgunean](#) kontsulta ditzakezu.

Enpresa zerrenda horretan ez dagoen herrialde batean badago, «Datuen Nazioarteko Transferentzia» araudian aurreikusitako beste neurri batzuk hartzen badira bakarrik gauzatu ahal izango da. Ondorio horietarako, adibide gisa, aipatu behar da Europako

Batzordeak kasu horietarako onartutako klausula estandar batzuk (kontratu-klausula motak) sinatu direla.

Nolanahi ere, Ibercajan zure datuak Europako Esparru Ekonomikotik kanpo dagoen enpresa batekin partekatzea salbuespenezko egoera da; eta, hala eginez gero, jakina, Estatuko eta Europako araudiak ezartzen dizkigun baldintzak beteko dira.

## **6. Zuri buruzko zer informazio pertsonal mota jaso dezakegu?**

Araudiak ezartzen duen bezala, Ibercajan datuen minimizazioaren printzipioa betetzen dugu, hau da, lortu nahi den helbururako ezinbestekoak diren datuak bakarrik tratatuko ditugu. Beraz, ez dizkizugu eskatuko helburu horretarako egokiak ez diren datuak, ezta ere gehiegizkoak edo neurrigabeak direnak.

Horrela, kasu bakoitzean hainbat kategoriatako datu pertsonalak bildu eta tratatu ahal izango ditugu, betiere eskatu genizkizun edo hirugarren batek eman dizkigun helburuaren arabera (esan dizugun bezala, legez debekatuta ez badago, beti jakinaraziko dizugu). Adibidez, mailegu bat eskatzen badiguzu, zuri buruzko informazio gehiago aztertu beharko dugu, herri jakin batean kutxazain automatikoren bat non aurki dezakezun jakin nahi baduzu baino.

Oro har, Ibercajan honako datu-kategoria hauek bildu eta tratatu ditzakegu:

- Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN/AIZ/pasaportea, nazionalitatea, sinadura, egoera zibila, jarduera-sektorea, irudi pertsonala eta ahotsa.
- Harremanetarako datuak: telefonoa, harremanetarako helbide elektronikoa eta posta-helbidea.
- Zure lanpostuari buruzko datuak: jarduera-sektorea, zein erakunde edo antolakundetan lan egiten duzun, zein lanpostutan, harremanetarako helbidea eta datuak (telefonoa eta posta elektronikoa), datu akademikoak eta profesionalak, titulazioak, prestakuntza, antzinasuna eta lanbide-esperientzia.
- Datu ekonomiko-finantzarioak: banku-datuak eta zure jarduera ekonomikoari eta kaudimenari buruzko datuak (diru-sarrerak, ondarea, titulartasuneko ondasun higigarriak eta higiezinak, zerga-aitorpenen kopia -PFEZ, BEZ, besteak beste- eta nomina, zorpetze-maila, familia-kargak, ez-ordaintzeak, eratutako bermeak, dagoen arrisku-maila, kontsumo historikoaren maila).

- Ondasun eta zerbitzuen transakzioen datuak: eragiketaren data, zenbateko osoa, transakzioaren xedea, hirugarren alderdien balizko bermeak.
- Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: sexua, egoera zibila, adina, jaioteguna eta jaioterria eta familia-datuak.
- Osasunari buruzko datuak: gaixotasunagatiko, lan-istripuengatiko eta desgaitasun-mailagatiko bajak.

Kategoria bakoitzean identifikatu ditugun datuak adibiderako dira, eta, beraz, ez dira zehatzak. Nolanahi ere, Ibercajarekin (bezeroa, hautagaia edo laguntzailea, besteak beste) duzun harremana kontuan hartuta, informazio gehigarria jarriko dugu zure eskura, zuri buruz tratatuko ditugun datu pertsonalak eta lortu nahi diren helburuak zehazteko.

### ***7. Nondik biltzen ditugu zure datu pertsonalak?***

Taldeko sozietateetan tratatzen ditugun datu pertsonalen iturri nagusia interesduna bera da; hau da, oro har, zuk emandako datuak tratatuko ditugu. Hala ere, sozietate bakoitzarekin duzun harremana garatzean, zuri buruzko datu pertsonalak ere sor ditzakegu.

Salbuespenez, zure datuak zeharka jasotzen baditugu, hau da, ez baditugu zuregandik zuzenean jasotzen, baizik eta hirugarrenengandik (adibide gisa, produktu baten titulartasuna partekatuko duzun hirugarren bati buruz ari gara, edo informazio-sistema ofizial bati buruz, Espainiako Bankuaren Arriskuen Informaziorako Zentralari buruz, esaterako), eta legezko betebeharrak batek eragozten ez badigu, horren berri emango dizugu hilabeteko epean, gehienez jota, eta ziurtatuko dizugu horren berri izango duzula erabat.

### ***8. Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?***

Ibercajan zure datu pertsonalak gorde eta erabiltzen ditugu behar-beharrezkoa den denboran, eta, betiere, datu horiek bildu ziren helbururako beharrezkoak diren bitartean. Horrela, kontserbazio-epea mugatzeko printzipioa betetzen dugu.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar duzu tratamenduaz arduratzen den erakunde gisa harremanetan zauden Taldeko sozietate bakoitzak, zure negozio-harremana edo zure datuak zer helburutarako bildu ziren amaitu ondoren, zure informazio pertsonala behar bezala blokeatuta gordeko duela, ezabatu aurretik, eska dakizkiokeen legezko

betebehar guztiak betetzeko, kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen epeetan, eta baita, halaber, izan litezkeen erreklamazioei aurre egiteko eta agintari eskudunen eskura edukitzeko ere, lege ezarritako preskripzio-epeetan.

Kasu horietan, Ibercajak beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu, helburu horretarako bakarrik erabiltzen direla bermatzeko.

## ***9. Nola babesten ditugu ematen dizkiguzun datu pertsonalak?***

Zure datu pertsonalak babestea gure lehentasunetako bat da, eta gure jarduera osoa gidatzen duen oinarrizko printzipio bat. Hori dela eta, Ibercajan zure datuen babesa bermatzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartzen ditugu, datuen osotasuna bermatuz, hau da, inork ezingo ditu datu horiek aldatu edo ezabatu zure ezagutzarik eta baimenik gabe, bai eta horien konfidentzialtasuna ere, inork ez dezan zure datuak behar ez bezala eskuratu edo erabili, eta, jakina, eskura izan ditzan.

Horrela, antolamenduaren esparruan, hainbat prozedura, protokolo eta barne-araudi ezarri ditugu zure pribatutasuna bermatzeko. Gainera, gure langileak etengabe trebatzen dira eta bete-betean ezagutzen dituzte datu pertsonalak erabiltzen dituztenean errespetatu behar dituzten konfidentzialtasun-betebeharrak.

Era berean, jakinarazi nahi dizugu badakigula egungo testuinguru aldakorra dena. Hori dela eta, Ibercajan ezarritako neurrien etengabeko jarraipena egiten dugu, eta neurri horiek eguneratu eta indartu egiten ditugu, baldin eta beharrezkoa bada zure datuak mehatxu berrien aurrean babestuko direla bermatzeko.

## ***10. Zer eskubide aitortzen dizkizu zure datu pertsonalei buruzko araudiak?***

Datuak babesteko araudiak hainbat eskubide aitortzen dizkizu. Eskubide horiek ezagutu behar dituzu, eta zure pribatutasuna babesteko eta harremana duzun Taldeko sozietate bakoitzean zure datu pertsonalen erabilera kontrolatzeko erabil ditzakezu. Zehazki, honako hauei buruz ari gara:

1. Sozietate bakoitzean zuri dagozkien datu pertsonalak tratatzen ari garen ala ez egiaztatzeko eskubidea duzu; eta, tratatzen ari bagara, datuok atzitzeko edo, okerrak direla uste baduzu, horiek zuzen daitezela edo, hala badagokio,

ezaba daitezela eskatzeko, besteak beste, bildu izan helbururako dagoeneko beharrezkoak ez direla uste baduzu.

2. Egoera jakin batzuetan, zure datuen tratamendua muga dadila eskatu ahal izango duzu.
3. Kasu jakin batzuetan, zure egoera bereziarekin lotutako arrazoiengatik, eta Ibercajan zure datuak tratatzen ditugun egoeretan, gure interes legitimoa dela-eta, zure datuen tratamenduaren aurka egin ahal izango duzu. Kasu horretan, utzi egingo diogu horiek tratatzeari, premiazko arrazoi legitimoak daudenean edo erreklamazioak egin edo haien aurrean defendatu behar denean izan ezik.
4. Zure datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango duzu erabilera komuneko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean.
5. Eman diguzun baimena edozein unetan kentzeko eskubidea duzu, egoki deritzozunean eta Taldeko sozietatearekin duzun harremana inolaz ere kaltetu gabe. Hala ere, zehaztu behar dugu, halaber, baimena kentzen baduzu, une horretatik aurrera izango dituela ondorioak, eta, beraz, ez diola eragingo Ibercajan egina dugunaren balioari.
6. Banakako erabaki automatizatuen mende ez egoteko eskubidea, ondorio juridikoak sortzen dituzten edo modu berdintsuan nabarmen eragiten dizuten profilak egitea barne. Horri dagokionez, egiten ditugun tratamendu erabat automatizatuen berri emango dizugu, pertsonen esku-hartzea eskatu, zure ikuspuntua adierazi eta erabakiak aurkaratu ahal izateko.

Azkenik, Taldeko sozietate bakoitzaren eta/edo Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (Datuak Babesteko arloan eskumena duen Kontrol Agintaritza gisa) erreklamatu ahal izango duzu, bereziki zure eskubideak baliatzean asebetetzea lortu ez duzunean, [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es) helbidera bidalitako idazki baten bidez edo [www.aepd.es](http://www.aepd.es) webgunearen bidez.

## ***11. Nola balia ditzakezu zure eskubideak datuak babestearen arloan?***

Ibercajak, oro har, hainbat baliabide jartzen ditu zure eskura, datuak babesteko arloan dituzun eskubideak erabil ditzazun harremanetan jartzen zaren Taldeko gizarte bakoitzerako:

- (i) Ibercajaren Datuak Babesteko Ordezkaritari zuzendutako idazkia (Plaza de Basilio Paraíso 2 – 50008, Zaragoza).



- (ii) Datuak Babesteko Ordezkeri Korporatiboari zuzendutako posta elektronikoa, Taldeko sozietate bakoitzerako aurreikusitako eta jakinarazitako helbidera, honako atal honetan ezarritakoaren arabera: [«12.Nola jakin dezakezu Taldeko sozietate bakoitzarentzako datuak babesteari buruzko informazio guztia?»](#). eta, besterik adierazi ezean, dpo@ibercaja.es
- (iii) Datu Pertsonalen gaineko Eskubideak Baliatzeko web-inprimakia, Taldeko sozietate bakoitzarentzat aurreikusia eta komunikatua, atal honetan ezarritakoaren arabera: [«12.Nola jakin dezakezu Taldeko sozietate bakoitzarentzako datuak babesteari buruzko informazio guztia?»](#), oro har, [www.ibercaja.es/forms/ejercicio-de-derechos](http://www.ibercaja.es/forms/ejercicio-de-derechos)
- (iv) Datu Pertsonalen gaineko Eskubideak Baliatzeko Formularioa, Taldeko sozietateekin kontratatutako online aplikazio eta zerbitzuetan eskuragarri dagoena, oro har, Banka Digitalean.
- (v) Aurrez aurreko eskabidea, Ibercaja Banco S.A.ren sareko edozein bulegotan.

Horri dagokionez, segurtasun-arrazoiengatik, Taldeko sozietateek erantzukizunez edo zaintzapean duten informazioaren sentikortasuna dela eta, zure eskaera aurkezteko bitartekoaren arabera, zure nortasuna egiaztatze eskatu ahal izango dizugu, zure Nortasun Agiri Nazionalaren edo agiri ofizial baliokidearen kopiaren bidez. Horrela, zure datu pertsonalen babesa hobetzen dugu, hirugarrenek zure nortasuna ordezka ez dezaten zure datuak legez kontra eskuratzeko edo aldatzeko.

## ***12. Nola jakin dezakezu Taldeko sozietate bakoitzarentzako datuak babesteari buruzko informazio guztia?***

Ibercajan, zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio guztia emateko, «geruza bikoitzeko» sistema bat erabiltzen dugu, *Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak* eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak aurreikusitakoa.

Informazioaren gardentasuna eta eskuragarritasuna hobetzeko sistema honen bidez, zure datuen tratamenduari buruzko baldintza guztiak bi mailatan emango dizkizugu:

- Alde batetik, **«lehen geruza»**, oinarrizko informazio garrantzitsuena biltzen duena. Gaingiroki, zure datuen tratamenduaren ardura duen sozietatea nor den, zein helbururekin tratatuko dituen, nola balia ditzakezun zure eskubideak eta, azkenik, nola eskuratu eta ezagutu dezakezun xehetasunez zure datuen erabilerari buruzko gainerako informazioa.

Aipatutako 3/2018 Lege Organikoak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren gomendioek ezartzen dutenari jarraituz, lehenengo geruza emango dizugu, modu independentean eta argi eta garbi, zure datuak atzituko ditugun unean bertan. Adibide gisa, (i) bete behar duzun web-inprimaki bateko edo sinatu behar duzun kontratuko klausula baten bidez, (ii) telefono-dei baten hasierako lokuzio baten bidez, edo (iii) bideoz zaindutako guneetako sarreran kokatutako informazio-kartelen bidez.

- Bestetik, eta aurrekoa osatuz, «**bigarren geruza**» bat, datuen babesari buruzko araudiak eskatzen duen gainerako informazio guztia biltzen duena.

Harremanetan jartzen zaren sozietate bakoitzari dagokion bigarren geruza, eta harekin duzun harremanean zein baldintzatan jarduten duzun (adibide gisa, bezero, laguntzaile edo enplegatu izaera adieraz dezakegu), beti izango duzu erabilgarri eta edozein unetan eskuratu ahal izango duzu, kasu bakoitzean dagokion lehenengo geruzan adierazitako jarraibideei jarraituz, oro har, Taldeko URL batean sartuta.

Nolanahi ere, edozein unetan eta zuzenean eska diezaiokezu Datuak Babesteko Ordezkarri Korporatiboari, [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es) helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz, helaraz diezazugun.

### ***13. Nola lor dezaket informazioa bezeroa banaiz?***

Taldeko kide den sozietate bateko bezeroa bazara, edo harekin lehen aldiz kontratazio-prozesuan bazaude, hau da, sinatu beharreko kontratu aurreko edo kontratuko dokumentazioan bezero berri bihurtzeko prozesuan bazaude, zure datuak tratatzeko oinarrizko baldintzak (lehen geruza) zehaztuko dizkizugu, baita gainerako informazio gehigarria eskuratzeko modua ere (bigarren geruza).

Era berean, gure aplikazio mugikorretako edozein erabiltzera zoazenean, hori deskargatu aurretik Talde arduradunaren datuak babesteko baldintzak ikusi eta ezagutu ahal izango dituzu. Informazio hori eskuragarri izango duzu, halaber, aplikazioan bertan eskuragarri dagoen atal espezifiko batean.

### ***Dokumentuen eguneratzea***

Ibercajan Pribatutasun Jarduerako Printzipioen dokumentu hau etengabe eguneratuz berrikusten eta mantentzen dugu. Horregatik, aldizka berrikustea gomendatzen dizugu.